

Euskara Batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik

Julian Maia

*Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
Irakasleen Unibertsitate Eskola Bilbokoa
UPV/EHU*

SARRERA¹

Gaur eguneko euskara batua izeneko hizkuntz ereduaren oinarriei, Euskal-tzaindiak 1968an eman zien hasierako onespén akademikoa. Orduan, gizartean borroka gogorrak izan ziren zein ote zen modurik egokiena euskara indartzeko: eredu elkarretaratzaille berriaren inguruan indarrak bildu, edo euskalkiak landu eta sendotu. Tarteko bide ñabarragoak eta orekatuagoak ibiltzearen aldeko jarrerak ere izan ziren, baina halere auzia polarizatu zen, eta elkarren kontrako bi aukera agertzen ziren, praktikan tarteko bideentzat eta bizikidetzarentzat toki handirik gelditzen ez zelarik.

Gaur egun, ordea, euskara batuaren eta euskalkien arteko auzian iritzi aldaketa gertatzen ari da gizartean: euskara batuaren oneste osoarekin batean euskalkien tratamendu egokia ere albora ezinekotzat jotzen du aunitzek, euskararen normalkuntza prozesuaren baitan. Irakaskuntzaren esparruan ere gisa bereko bilakaera ageri da. Aldabide horretan garai batzuk bereizteko saioa aurkeztuko dut, alde batetik, eta bestetik proposamen baten ildo nagusiak agertuko ditut.

Horretaz gainera, azalduko da euskara batuaren eta euskalkien arteko harreman horiek nolako trataera izan duten irakaskuntzaren esparruan, hartarako ikastetxe batzuetako jardunaren berri laburra emanez, alor horretako aribidea adierazteko balio dezakeelakoan, orientabide gisa.

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO HARREMANEN BILAKAERA (1968-2000)

Etenik gabeko prozesu batean garaikatzea ezartzeak beti nolabaiteko tekua artifiziala badakar ere, eredu horien arteko harremanetan hiru aro bereizi ikusi uste izan ditut.

¹ Txosten honen oinarria, joan den urteko ekainean EHUan aurkezturiko tesi bat da (Maia 2000).

Lehenbizikoak, 1968tik 1982a arteko urteak hartuko lituzke. Garai horren ezaugarri nagusia da orduan bizi zen borroka giroa. Euskara batua onartzeak ezinbestean edo eramaten zuen euskalkien balioa ukatzera; eta beste aldetik, euskalkien balioa aldarrikatzeak eredu bateratzailearen kontrako jarrerara eramaten zuen besterik ezin balitz bezala. Ez zen biderik asmatu eredu ustez kontrajarri horien arteko bizikidetzarentzat. Borroka horren ondorioetako bat izan zen euskara batua modu zurrun eta estuan ulertzeko joera, eta euskalkien ezaugarriak eredu horretan nekez onartzekoa. Garai honetan, irakaskuntzako proposamenek ez dute ñabardura handirik, oro har: euskara batuaren kontrako eredu gisa, euskalkiak aldarrikatzen dira (Arenaza 1974, Latiegi eta Oñatibia 1982). Izan ziren iritzi orekatuagoak ere, baina ez zuten nonbait atxikimendu aski bildu gizartearen (Villasante 1977, Zarate 1978, Euskaltzaindia 1979a eta 1979b, Carlos Santamaria 1979...).

Bigarren aroari igarotze aldia esaten diot, eta mugak 1982 eta 1988 urteak proposatzen ditut. Bigarren aro honen mugarritako, honako gertakari hauek hartzen ditut, besteak beste: Hezkuntza Sailak 1982ko urrian eginiko adierazpena hasiera gisa, eta amaiera Koldo Zuazoren tesiaren ondorioetako jarrera (1988). Garai horretan, euskalkien berpiztea sumatzen da alde batetik, baina bestetik kezka, mugimendu horrek euskara batuari kalte besterik ez ote zion ekarriko. Joera bikoitz hori ongi ageri da 1984ko eguberrietan, Eibarko Udalak antolatu zituen jardunaldietan, Euskara/Euskalkiak izenburua izan zutenak. Irakaskuntzan, Agirre, Eguzkitza, Idiazabal eta Larringanen lana izanen genuke adierazgarria, 1985ean. Hartan euskalkiaren balioa goresten da, baina ñabarduraz osatuagoa aurkezten da: alde batetik, lurralde eta ikasle euskalkidunak hartzen dira aintzat bereziki; bestetik, arrazoi psikopedagogikoen bidez egiten da argudioa; azkenik, euskara batuaren balioak onartzen dira, zenbaiten ustez uzkur samar bada ere.

Hirugarren garaia hasiera, berriz, 1988aren inguruan kokatuko nuke, eta gaur egun horixe da indarrean. Honen ezaugarri nagusia da gizartearen maila teorikoan gaintzen hasten dela euskara batuaren eta euskalkiaren arteko aurkaritza ustez ezinbestekoa, eta gero eta gehiago agertzen direla eredu bien arteko osagarritasuna aldarrikatzen duten iritziak, eta baita ekimen praktikoak ere ildo horretan. Jose María Sánchez Carriónen oinarriko teorizazioa garrantzi handikoa iduritzen zait (1986 eta 1987). Garai honetan azaltzen diren iritzi-proposamenetan, euskara batuaren beharra onartzetik abiatuta, esan daiteke inork ere ez duela maila teorikoan euskalkien balioa ukatzen, alderantziz baizik. Baina hala ere ñabardura gehiago agertzen da jarreretan: ahozko eta idatzizko jardunak bereizten dira, eta hizkuntza mailak edo erregistroak ere kontuan hartzen dira, esate baterako. Bestalde, ez da euskara batuaren edo euskalkiaren aldeko erabateko apusturik egiten, eta eztabaidatzen diren puntuak gisa honetakoak dira: zein lurraldetan da onuragarri euskalkia erabiltzea? Zein irakas-mailatan? Ahozko kodean edo/eta idatzian? Zein euskalki eredu baliatu? Zer helburu du euskalkia erabiltzeak? Nolako euskara batua erabili behar da eskolako jardunetan? Garai honetako iritzien adibideak dira Uruburu (1993), Goikoetxea (1996, 1997 eta 2001), Elexpuru (1996), Maia (2000), Zuazo (1989, 1993, 1999a, 2000).

Euskara batua bai, eta euskalkia ere bai, baina toki batzuetan (proposamena)

Txosten honen oinarria den lanean gogoeta teorikoa egiten genuen, hizkuntza eredia hautatzeko orduan kontuan hartu beharreko faktoreez. Honako hauek genituen gogoan: 1) eskolaren zeregina eta funtzioak; 2) irakasleen prestakuntza eta jarrera; 3)

ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak; 4) arrazoi politiko-ideologikoak eta arrazoi didaktikoak; 5) euskal hizkuntzaren eredu desberdinak (euskara batua, euskalki literarioa, eskualdeko berbeta eta herrian herriko hizkera); 6) material didaktikoa.

Faktore horiek aztertuta, proposamen bat aurkezten genuen, honako puntuotan bil daitekeena: 1) eskolan euskara batua ikasi-irakatsi behar da, baina inguru euskalkidunetan euskalkia ere bai, arrazoi birengatik: batetik, eredu bakoitzak komunikazio funtzio bat betetzen du, eta bestetik euskalkitik abiatzeak euskara modu osoagoan eta naturalagoan ikasteko bidea eskaintzen du; 2) irakasleen prestakuntza kontuan hartu behar da, eta desegokia litzateke euskalkia euskara batuari kontrajartzea, beste eredu guztiz desberdina balitz bezala, ez baita hala; 3) ikasleak euskalkidunak baldin badira edo/eta inguru euskalkidunean bizi, eredu dialektalean aritzea egokia da, baina bestela ez; eskolaren inguru sozial hurbilean euskalkirik ez bada, euskara batuaren aldearen bat erabiliko genuke eredu; beste aldetik, zenbatez eta giroan euskalkia biziago egon, hainbatez arreta handiagoa behar luke; eskola-garaia bere osoan hartu behar da gogoan, eta horren barrenean ikasleen adina eta euren inguru soziolinguistikoa; 4) arrazoi politiko-ideologikoak barik, arrazoi didaktikoak erabili behar dira: hizkuntza osoago eta naturalago ikasteko bide egokiena eta "merkeena" zein den aztertu behar da; 5) euskara batua modu malgu eta zabalean ulertu behar da eskolako jardunean, tokian tokiko ezaugarriari arreta jarrita; euskalki literarioak arazo batzuk izan ditzake zenbait eskualde euskalkidunetan; euskalki bereko eskualde batetik bestera hizkeraren ezaugarri batzuk aldatzen dira, eta horiei erantzun eman behar litzaieke; horretaz, eskualdeko berbetaren ezaugarrietatik abiatzea proposatzen dugu, kontuan harturik ezinezkoa iduritzen zaigula herrian herriko egungo hizkera hartzea eredutako.

Azterketa enpirikoa, Gernika aldean eta Bortzirietan

Eskoletan nolako jokabide zehatzak gertatzen ziren ikusteko, bi eskualdetan burutu genuen azterketa enpirikoa, Bizkaiko Gernika aldean (Gernika-Lumon eta Muxikan), eta Nafarroako Bortzirietan (Lesakan eta Beran). Bi inguruetan bada euskalkia, eta bietan jo dezakegu euskarak bizkortasun handia duela: biztanleen % 70 inguru da euskalduna (eta beraz, haietako aunitz, euskalkidunak). Horrek, aukera onak eskaintzen ditu eskolan bertako aldaeren formei bide zabala emateko.

Hamar ikastetxerekin aritu ginen lanean: 5 Muxikan eta Gernika-Lumon, eta beste 5 Lesakan eta Beran, denak irakaskuntza euskaraz bideratzen dutenak². Berrogeita bi irakaslek lagundu ziguten, Lehen Hezkuntzakoak, eskuzabaltasun handia erakutsita: eskerrik asko denei³. Azterketa honetan ez genuen kontuan hartzen irakasle horiek euskaldun zahar edo berri ziren, edo herriko hizkera bazekiten edo ez: azken batean, bilatzen genuena zen ea eskualdeko ezaugarriek zenbateko aukera zuten bizirik irauteko irakasleen batez besteko hizkuntz galbahetik igaro ondotik.

2 Hauek izan ziren azterturiko ikastegiak: *Urretxindorra* Herri Ikastetxea Muxikan, eta Allende Salazar Herri Ikastetxea, *Sebero Altube* Ikastola, *San Fidel* Ikastola eta *Barrutia* Herri Ikastetxea, azken laurok Gernika-Lumon; *Tantirumairu* Ikastola eta *Irain* Eskola Publikoa (biok Lesakan), eta *Ricardo Baroja* Eskola Publikoa, *Labiaga* Ikastola eta *Jesusen Bihotza* Ikastetxea, azken hirurok Beran.

3 Gernika aldean: *Seber Altube*-n, 7 irakaslek; *Allende Salazar*-en, 7k; *Barrutia*-n, 4k; *Urretxindorra*-n, 3k; *San Fidel*-en, 2k. Beran eta Lesakan: *Labiaga*-tik, 6 irakaslek; *Tantirumairu*-tik 4k; *Irain*-dik, 4k; *Ricardo Baroja*-tik, 3k; *Jesusen Bihotza*-tik, 2k.

Azterketa enpirikoaren helburua zen ikastea eskualde euskaldun horietako eskolara datozen ikasleen forma dialektalak nola tratatzen ziren eskolako eginkizun idatzietan, nolanhikoak direla ere: ea forma horiek besterik gabe onartzen ziren, edo ez ziren hala egiten, dela irakasleek zalantza erakusten zutelako, edo dela gaitzesten zituztelako. Hiru indize atera genituen: Ezaugarria Gaitzesteko Indizea (EGI), Ezaugarriarekiko Zalantza Indizea (EZI) eta Ezaugarria Aldatzeko Joeraren Indizea (EAJI=EGI+EZI)⁴. Nolanahi ere, indize horiek 1996-1997 urteetan bildu genituen, eta orduko jokabidea eta egoera islatzen dute.

Hizkuntza gertakari bat lan honetan aztergai hartzeko, honako irizpide hau erabili genuen, nagusiki: nozio bera adierazteko, hizkuntza baliabide diferentek usa daitezela bi eskualdeetan; halere, horretaz gainera, zenbaitetan eskualde bietan berdintsu erabiltzen diren ezaugarri batzuk ere aztertu genituen, hain zuzen euskara batu soziologikoan (Salaburu 1994) sartzen ez zirela uste genuen kasuetan⁵.

Hipotesi hauxe erabili genuen: eskolako lan idatzietan ezaugarri dialektalen aurrean irakasleek nolabaiteko gaitzespena agertuko zutela, bi dimentsiotan: batetik, ez ziren onartuko eskualdeko hizkeraren ezaugarri batzuk, baldin eta euskara baturako haien orde besterik ez zuten hautatuak baziren (adibidez, erakusleen deklinabidean edo aditz laguntzailean)⁶; bestetik, irakasleek ez zuten euskara batua har zitekeen bezain modu zabalean hartuko, eta irazki estuxkoa erabiliko zuten eskolan idatziz onartzeko lirakeen hizkuntza formei dagokienez.

Gainera, beste hipotesi hau ere baliatu genuen: herriko forma horiek ez onartzeko joera handiagoa izanzen zen Gernika aldean Bortzirietako eskolatan baino, batez ere euskalkiaren eta euskara batuaren arteko gatazka ustez ttikiagoa izan delako Nafarroa aldean Bizkaian baino.

Hipotesiak egiaztatzeko edo gezurtatzeko prozedura, berriz, laburturik, honako hau izan zen: irakasleei aurkeztu zitzaizkien inguruko item linguistiko batzuk esaldi batzuetan sartuak, eta zuzentzeko eskatzen zitzaizkien, esan gabe ordean zein ezaugarri axola zitzaizkigun, eta ohiko irizpideen arabera zuzentzeko galdetuta, euren geletako ikasleek idatziak balira bezala.

Emaizetara etorrira, lehenbiziko esan beharko litzateke errealitateko datuak ez zirela agertu ikuspuntu teorikotik pentsa genezakeen bezain ongi zedarrituak: hala, euskara batua zer den eta zer ez den, ez da espero genuen bezain muga zehatzik ageri irakasleen zuzentze lanaren batzuetan bestekoa egin eta: irakasle gehien-gehienek idatzizko lanetan euskara batua baliatzen zutela adierazi bazuten ere, adibidez, euskara batu formalean sartu "ezin" diren forma batzuk ere neurri batean onartzen dira (hori, berez, ez zaigu jokabide desegokia iduritzen).

4 Honela atera genituen indizeak: EGI=ezaugarria zuzentzen duten irakasle erantzuleen kopurua zati erantzule guzien kopurua; EZI=ez erabat onetsi ez gaitzetsi egiten zuten irakasle erantzuleen kopurua zati erantzule guzien kopurua; EAJI=EGI+EZI.

5 Gemika aldeko hizkeraren aztergaiak bereizteko, oinarri gisa Iñaki Gaminderen Foruko Euskararen Morfosintaxiaz izeneko lana baliatu genuen (1990, egilearen edizioa, Foruko Udalak lagunduta); Bortzirietako euskalkiaren bereizgarriak hautatzeko, berriz, gure hango solaskeraren jakintza erabili genuen, oro har.

6 Lan enpiriko honetako datu biltzea 1996 eta 1997ko udaberrien artean egin zen, eta horregatik, euskara batu formaltako (Salaburu 1994), bakarrik jotzen genituen Euskaltzaindiak 1994ko urriko batzarra baino lehenago erabakiak zituen puntuak.

Hona adibide batzuk:

Lesaka-Bera	onartu (%)	Gernika aldea	onartu (%)
gizonak ekarri dute	47	gizonak ekarri dute	48
Asierreri, norbaiteri (vs Asierrri)	40	Asierreri (vs Asierrri)	37
-tikan, -rikan (vs -tik, -rik)	69	loran (mugag.)	78
pertsonetaz (vs -ez)	78	mutilagaz	43
hok, hek (vs hauek, haiek)	25	ha (vs hura)	39
bide honetik (vs honetatik)	61	ebagi, jagi	53
ditiot (vs dizkiot)	19	-idu, burutuaren marka (mobidu, segidu)	47
nabila, dabila (vs nabil, dabil)	50	jat	35
doazi, zoazi (vs doaz, zoaz)	69	dogu	54
daukit (vs daukat)	28	zeinke (vs zenezake)	61
daramazkit (vs daramatzat)	83	dakitsut	91
begira uk/uzu!	79	halan, holan	71

Beste emaitza eta ondorio hauek ere aipatzekoak dira:

1) Eskualde bietan aurkitu dugu batz besteko joera, bertako ezaugarriak bere hala ez uzteko. Azterturiko bereizgarri guziak batean hartuta, grafikoki esan daiteke ezaugarrietatik lautik bat inguru aldatuko litzatekeela, gutti goiti-beheiti:

	EGIO⁷	EGIO	EZIO	EZIO	EAJIO	EAJIO
	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.
Lexikoa ez beste ezaugar ⁸	0'29	0'30	0'06	0'07	0'35	0'37
Lexikoa ⁹	0'10	0'13	0'04	0'06	0'13	0'20
Ezaug. guziak batean ¹⁰	0'19	0'22	0'05	0'07	0'24	0'28

Gernika aldean bertako formak aldarazteko joera handixeagoa ateratzen da; baina Na-farroako eskualdean ere oso antzeko jaidura ikusten da.

2) Azterturiko gertakari linguistikoaren artean, bi eskualdeetan, forma franko ez da txartzat hartzen (ikus ondoko koadroa).

	EGI<0'1 (%)	EGI<0'1 (%)
	Lesaka-Bera	Gernika aldea
Lexikoa ez beste ezaugar.	% 31	% 31
Lexikoa	% 70	% 58

7 EGIO: EGI Orotara; EZIO: EZI Orotara; EAJO: EAJI Orotara

8 Indizeak ateratzeko, item guzien banakako emaitzak hartu dira (397 Bortzirietan eta 389 Gernika aldean).

9 Lexikoko item guzien batz bestekoa egin dugu (120 Bortzirietan eta 125 Gernika aldean).

10 Indize hau ateratzeko, beste bi multzoen indizeen batz bestekoa egin dugu.

Hona adibide batzuk:

Lesaka-Bera	ez gaitze- tsi (%)	Gernika aldea	ez gaitze- tsi (%)
etxe aldera (=etxerantz)	94	biok, denok	100
etxerat, Lesakarat	94	berton, bertotik	98
lau urteko neska	92	jendetan batu da...!	96
bi egunez	94	uretan egon, uretara jausi	100
zerbait	100	birik (=bitik)	91
nornahi	94	kalerik kale	96
deus	94	bihar goizerako	100
eurek	98	neu, heu	99
neronek, geronek	96	inor (=beste)	91
xamar	100	nortzuk, zeintzuk	100
ber-a, ber-ean...	97	edonork, edonori	100
etxe bi	98		
Lexikoa		Lexikoa	
ai(n)tzin	98	aurre	100
amatxi	100	amama	98
atorra (=alkandora)	100	alkondara	100
barren (=barru)	100	barru	100
behatz (eskukoa)	100	atzamar	100
erne egon	100	adi egon	100
galtzak	100	prakak	100
jostatu	100	olga(t)u	89
zango	100	berna	100
akabatu, akautu (=amaitu)	89	akaba(t)u (=amaitu)	30

Iruzkina: tokiko berezitasun kopuru adierazgarri batek, bi eskualdeetan, ez du otoporik eskolaren *galbahean eralkitzeko*. Gernika aldean eragozpen handiagoak jartzen zaizkio ondare lexikoari eskolan onartuak izateko. Lexikoa ez besteko bereizgarrien atalean, batez beste ezin esan daiteke Gernika aldeko hizkerako ezaugarriek zorrotzago gaitzesten direla eskolan, Bortzirietan baino.

3) Baina txanponaren beste aldea adierazgarriagoa da: handia da, oro har, eskolan nola edo halako traba esanguratsua jasaten duen itemen kopurua, batez ere lexikoa ez den atalean. Ondoko koadroan ikus daitezke adibide batzuk:

Lesaka-Beraez	gaitze- tsi (%)	Gernika aldea	ez gaitze- tsi (%)
esuan jarri	83	asteon	52
bizikletan etorri (vs bizikletaz)	44	bizikletan etorri	39
haietara joan (vs haiengana)	86	hiru egunerik, goizerik	57
hiru eguneko joan (vs egune(ta)rako)	44	honeek, horreek...	54
bihar goizeko (vs goizerako)	50	pagetan, pentsetan	33
nor etorri dira? (vs nortzuk)	42	zehatz ondo (maila adb.)	48
ekartzen bazenu (vs ekarriko ba-)	100	zertan joan zara (vs zertara)	57
hemen da (vs dago)	34	joan danik hona (vs denetik)	80
ongi itsusia (maila adberb.)	56	izan ezean (vs izan ezik)	65
joan gogo dut	56	hain da handia ze ez da...	57
lanean gelditu (vs -ari utzi)	100	ezpabe (lok. haut.)	83
hura etorri deneko (noizko)	72	saltzen noa (vs saltzera)	24
egitekoz, egizu orain (bald.)	50	banoa, ze ez daukat dirurik	61
Lexikoa		Lexikoa	
atrebitu	31	aditu (=ulertu)	24
estudiatu	61	atrebidu	54
hetsi (=itxi)	50	berba	22
galdetu (pedir, demander)	28	martitzen	22
josteta	22	paga(t)u	41
nerbiostu	17	eroan	17
Aldaerak		Aldaerak	
ateri (=atera)	17	ahizta	17
behari	33	denpora	26
bozik (=pozik)	26	etse (=etxe)	96
guti	22	gitxi	35
itxe (=etxe)	25	narru	30
sube (=suge)	39	sube (=suge)	70
		ule (=ile)	26

4) Euskara batu formalak "debeketzen" dituen bereizgarriak ez onartzeko joera handiagoa da, oro har, beste itemen kasuan baino (ikus ondoko koadroa).

	EGIO	EGIO	EZIO	EZIO	EAJIO	EAJIO
	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.
EBFk baztertu ezaugar. ¹²	0'43	0'48	0'11	0'14	0'54	0'62
EBFk ez baztertuak	0'28	0'27	0'05	0'07	0'33	0'34

¹² EBF= Euskara Batu Formalak (ikus 6. oharra). Koadro honetako indizeak ateratzeko, ezaugarri guztien indizeak baliatu ditugu (lexikoa ez dugu aintzat hartu).

Horrek adieraziko luke eredu horrek eragiten duela irakasleen jardun zuzentzailean. Beste alde batetik, ordea, eredu batu formalean sartzen ez diren ezaugarri batzuk ez dira erabat gaitzesten; edo bestela esanda: euskara batu formalak ez ditu arrotan "itotzen" edo "bizigabetzen" harekin lehian ari diren forma dialektalak.

5) *Euskara batu formalean* erabaki gabeko ezaugarrien artean ere, joera bakan-du-zalea ageri da, eta horrek, *euskara batua soziologikoaren* eragina erakutsiko ligu-ke, edo *ustezko euskara batuarena*, eta haren erreferentzi balioa.

6) *Euskara batu formalak* eta euskara batua uste denak, beraz, biek eragiten dute. Baina inguruko hizkera moldearen bizkortasunak ere zeharka bederen eginen luke, benetako edo ustezko eredu arauzkoen ondoan, eta batzuetan haien aurka ere bai.

7) Herri eta eskualde euskaldunetan bertako hizkeraren hainbat forma ez lirateke baztertu behar eskolako jardunean, haien ordeztuzko euskara batuaren eredu soil-soila ezartzeko, eta bai ordea haiek aintzat hartu, arreta eskaini, eta zaindu. Jagote lan hori bi modutan gauzatu beharko litzateke: batetik, euskara batua modu zabalean ulertuz; eta bestetik, euskara batu formalak "ukatzen" dituen ezaugarriak ere lantzeko moduak eta aribideak bilatuz, baldin eta euskara zuzenekoak badira. Horrela, dialektoetako hitzunei beren hizkeraren harrotasuna ez litzaieke kenduko, belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan etena tikiagotuko litzateke, eta funtsean hitzun hobeak aterako liratekeela uste dugu, hizkuntza sena ez bailitzateke hainbeste kamusteko arriskuan jarriko.

8) Lan honetan neurri batean baietsi dugu azterturiko ikastetxeetan irizpide murrizgarria erabiltzen dela inguruko forma linguistiko ugariaren aurrean. Baina, aztertokieta bildu ditugun iritziz batzuek iradokitzen dute jokabide hori ez datorrela euskalkiaren edo herriko hizkeraren kontrako joera ohartu eta deliberatu batetik, eta beraz, alda daitekeela, informazioaren eta prestakuntzaren bidez.

BIBLIOGRAFIA:

- AGIRRE, EGUZKITZA, IDIAZABAL, LARRINGAN (1985). *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen/La enseñanza en euskera en Vizcaya: problemas y algunas propuestas*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- AREJITA, A. (1986). «Euskara batua eta euskalkien arazoa hezkuntzan», in EIBARKO UDALA (arg.) (1986).
- ARENAZA, J. (1974). *Tus hijos y el euskera (El mito del "BATUA")*. Bilbo: La Editorial Vizcaina.
- BASTERRETXEA, J. Oskillaso (1984). *El libro Negro del Euskera*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- COLL eta Beste Batzuk (1994). *El constructivismo en el aula*.artzelona: Graó
- EIBARKO UDALA (arg.) (1986). *Euskara/Euskalkiak*. Eibar: Eibarko Udala
- ELEXPURU, J. M. (1996). «Herri-euskararen eremua», *Euskera* 41, 1996-3, 523-529.
- EUSKALTZAINDIA (1979a). «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak», *Euskera* 24, 103-106.
- (1979b). «Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan», *Euskera* 24, 1979-2, 697-698.

- _____ (2000). Hiztegi Batua, *Euskera* 45, 2000-2, Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (1982). «Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan», Gasteiz, EJAZN
- _____ (1992a). Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza, Gasteiz, EJAZN.
- _____ (1992b). Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza, Gasteiz, EJAZN.
- GEREÑO, X. (1978). «Bergarago (sic) biltzarrerako», *Euskera* 24, 807.
- GOIKOETXEA, J. L. (1994). «Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak», *Euskera* 39, 795-830.
- _____ (1996). «Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan», *Euskera* 41, 1996-3, 517-521.
- _____ (1997). «Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari», in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA (1997). *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*, Bilbo.
- _____ (2001). «Euskal diglosia irazia eta ikaskuntza esanguratsua euskalkia eskolaratzeko», in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA (2001). *Euskalkia eta Hezkuntza*, Bilbo, 145-177.
- IDIAZABAL, I. (1984). «Euskara eta eskola», in RUIZ OLABUENAGA & OZÁMIZ (argit.) (1986), 167-181.
- _____ (1992). «Euskararen normalkuntza eta kurrikulumaren berrikuntza», in IDIAZABAL, I. (ed. arduraduna). *Pedagogía del texto-Testuaren pedagogia*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- KINTANA, X. (1986). «Literatur euskara batua eta euskalkiak», in EIBARKO UDALA (arg.), 149-161.
- LABAYEN, A. M. (1972). *Sasi-Batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo-unificación*. Tolosa: Gráf. López Mendizabal.
- LATIEGI' tar Bixente; OÑATIBIA' tar Dunixi (1982). *Euskaltzaindiari epaiketa*. Donostia: Lorea Artes Gráficas
- LATIEGI, V. de; OÑATIBIA, D. de (1983). *Euskaltzaindia El Batua y la muerte del euskera*, Donostia, Lorea Artes Gráficas
- LÓPEZ DEL CASTILLO, LI. (1982). *Llengua standard i nivells de llenguatge*. Bartzelona: Laia
- MAIA, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*, EHU, doktore tesi argitaragabea.
- MENDEBALDE EUSKAL KULTUR ALKARTEA (2001). *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo.
- MOKOROA, J. M. (1971). *Lengua vasca de hoy y de mañana*. Donostia: Ed. Auñamendi.
- RUIZ OLABUENAGA & A. OZÁMIZ (arg.) (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia. Sociología de lenguas minorizadas*. Donostia: Ttarttalo.
- SALABURU, P. (1994). «Euskara batuaren egungo premiak», *Euskera* 39, 1994-3, 675-695.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. Txepetx (1986). «Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística», in RUIZ OLABUENAGA & OZÁMIZ (arg.) (1986). Donostia: Ttarttalo, 19-49.
- _____ (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las lenguas*. Lizarra: egilearen edizioa.
- SANTAMARÍA, C. (1979). «El euskera como lengua escolar», *Euskera* 24, 465-481.

- TRUDGILL, P. (1983). *Accent, Dialect and School*, London: Edward Arnold (publishers) (zazpigarren argitaraldia; lehenbizikoa, 1975ean).
- URUBURU, Laura (1993). «Bizkaiera eskolan», in BILBOKO UDALA. BARRAINKUAKO UDAL KULTUR ETXEA (arg.), 197-223.
- VILLASANTE, L. (1970). *Hacia la lengua literaria común*, Oñati, EFA.
- _____ (1977). «Bitor Garitaonandia jauna eta euskararen batasuna», *Euskera* 22, 1977-1, 39-45.
- ZARATE, M. (1978). «Euskara batua eta euskalkiak», *Euskera* 25, 557-568.
- ZUAZO, K. (1988). *Euskararen batasuna*, IKER-5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____ (1989). «Euskalkien geroaz», *Jazten 1*, 1989ko iraila, Arrasate.
- _____ (1993). «Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa», *Jakin* 76, 41-62.
- _____ (1999a). *Deba ibarreko euskeria*. Oñati: Deba Ibarreko Udalak.
- _____ (1999b). «Euskararen osasuna eta euskalkiak», *Euskera* 44-1, 355-362.
- _____ (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.